

BALEIKEREN ETA IRABAZIREN OHARRA

"Arrasateko udal gobernuak herritarrei egi guztia esan gabe jarraitzen du hedabideen bitartez. Orain egun batzuk prentsurrekoan gardentasunaren alde pausuak ematen ari direla adierazi zuen publikoki, BAZ-eko hiritarren kexak web orrian argitaratuko zituela esanez, baina errealitatean ekintza hau Baleike eta Irabazi udal taldeen eskaerak behartua egin dutela aitortu gabe.

Aldaketa aurrerakoi guztiak legedi honetan oposizioaren eskaera eta proposamenen bitartez egin direla aldarrikatu nahi dugu, gobernu taldeak propio bezala saldu nahi dituen arren.

Harriturik gaude nola prentsurrekoan egia ezkutatzeko gobernuaren borondatearekin, aurreko legediko gobernuak gai honen inguruan kritikatu (esanez ez zutela BAZ-eko kexak oposizioari zabaltzen) guri behin eta berriz legedi honetan bertan proposamen hau bera batzordeetan ukatuz eta azkenean gure eskaeren aurrean behartuta eginez.

Argazkian bertan dagoen gobernuko zinegotziak, Juan Ramon Mendietak, behin eta berriz ukatu digu kexa hauek eskuratzeko aukera Obra eta Zerbitzuetako batzordeetan, oposizioaren lana oztopatuz eta daukagun informaziorako eskubidea urratuz.

Kasu honetan bezala, beste hainbat aurrera pausu oposizioko taldeek bultzatuak izan dira eta ez gobernuaren ekimen edo borondateagatik, hauen xedea horrela saltzea izan arren".